

ERASO SEXISTEN AURKAKO **PROTOKOLOA**

I-IDENTIFIKAZIOA

II-ERANTZUNAK

III-BALORAZIOA

IV-LISTE OKERRAK

I-IDENTIFIKAZIOA

Eraso sexista horiek salatu aurretik identifikatu behar ditugu; izan ere, askotan eraso asko ezkutuan geratzen dira. Horretarako, laguntza moduan, ondorengo sailkapena egin dugu:

- **Fisikoak:** emaztea zuzenean fisikoki kaltetzen duten erasoak (kolpeak...).
- **Eraso sexualak:** emaztearen borondatearen aurka harreman sexualak izatera behartzea, hau da, ez du bakarrik penetrazioa kontuan hartzen. Hemen barnean bortxaketa eta ukimenak sartzen dira.
- **Psikikoak:** emaztea gutxiesten duten portaera edo jarrera oro (mehatxuak, irainak, txistuak, mikromatxismoa, begiradak, errudun-sentimendua, umilazioa, debekuak).
- **Kontrola:** emaztearengan ezartzen den nolabaiteko kontrola bere askatasuna murrizten duena. Horrela emaztea ez da bere ekintzen eta batzutan pentsamenduen jabe.
- **Jarrera:** bereziki besta-esparruan ematen den emazteekiko portaera insistentea (“Ez, ez da!”) emaztea objektu bezala kontsideratzera eramaten duena (“ce soir, je me la fais” ; ipurdia hunkitu neska bat pasatzen denean).
- **Mikromatxismoa:** gure gizartean barneratuak diren pentsamendu, hizkera eta portaera multzoa da. “Mikro”-rekin ez da aditzera eman nahi garrantzi gutxiago dutenik baizik eta ez

direla beste erasoak bezain agerikoak. Hortaz, egoera hauetaz konturatu behar gara aurre egin ahal izateko (txisteak, komentarioak, rol sozialak, estereotipoak):

Komentarioak: “zer duzu gaur? neska bat iduri duzu”, “negartia zara, hori nesken gauza da!”

Txisteak: “zer egingo luke emazte batek ilargira iritsiz gero? Erratza pasatu”.

Estereotipoak:

- Urdina-arrosa
- mutilentzat baloia, neskentzat panpina
- neskek negar egiten dute, mutilek ez.

Rol sozialak: gizonak dirua ekarri, emazteak etxea garbitu, seme-alabak emazteen gauza da”.

Ondorioz, mikromatxismoak, modu bisibilizatu edota inbisibilizatuan diren egunerokotasuneko erasoak dira, sistema heteropatriarkala oinarri dutelarik. Mikromatxismoak gizonak erabiltzen dituzte eta ia-ia antzemanezinak dira, ez dira batere agerikoak.

Batzuetan, epe laburrari begira, jokabide horiek arrunt bihurtzen dira erabiliaren erabiliaz, eta oso zaila da izena jartzea edo jasaten ditugula adieraztea.

Mikromatxismoak sailkatzerako orduan, esan bezala, bi multzotan bereizi daitezke: zuzenak eta zeharkakoak.

➤ **Mikromatxismo zuzenak:**

- Etxeko lanetan ez parte hartzea
- Etxeko lanaren balioa ukatzea dirua kontrolatzeko aitzakiapean
- Diruaren erabileraren berri ez ematea
- Aisialdiaz gozatzea emaztearen lan-gainkargaren lepotik
- Etxea “bere gauzez” betetzea
- Edertasun kanonak

➤ **Zeharkako mikromatxismoak:**

- Etengabeko egozpenak
- Xantaia emozionalak
- Kasketaldiak

- Emaztearen ume-nahiarekin bat egitea baina ez zaintzea
- Beste batzuen aurrean etengabe egindako ezeztapenak
- Etxeko lanak egitean sortutako ahanztura selektiboak
- Harreman prefabrikatuak
- Eraso afektiboak

Gehiago egongo diren arren, oraingoan, aurrez aipatutako mikromatxismo eta orokorrean

jarrera matxistei aurre egiteko prebentzio jarduera hauek aholkatzen ditugu:

- a. Formakuntza: mahai inguruak, hitzaldiak, eztabaida guneak, tailerrak...
- b. Edozein ekintzetan ikuspuntu feminista txertatzea.
- c. Bakoitzak bere biziko mikromatxismo eta erasoen inguruan hausnarketa egin eta hauek ekiditeko jarrera hartu.
- d. Festibalean zehar, protokoloa irakurri jarrera horien kasuan zer egin garbi ukaiteko.

II-ERANTZUNAK

Emazteak markatuko ditu beti protokoloaren nondik norakoak. Horrenbestez, hau izango da nazio mailako emakumeen aurkako eraso fisikoak (kolpeak eta bortxaketak) gertatzen direnean proposatzen ditugun jarraibideak:

-Emazte baten bortxaketa, horren saiakera edo jotze salaketa baten kasuan, festibaleko momentu azkar batean (larunbat gaueko kontzertua adibidez) kontzertua gelditu, eta pankarta batekin eszena gainera igoko gira (EHZko arduradunak barne) salaketa ozen entzunaraztera.

-Gainontzeko erasoen kasuan aldiz, momentuan erabakitzekoa izanen da erantzuna nola eta noiz egin: elgarretaratze, EHZ egunkarian jakinarazi...

-Erasotuak ez badu nahi publikoki gertaera salatu, bere hautua errespetatuko da.

-Erasotzailea identifikatzen baldin bada, bere jarrerak festibalean tokirik ez duela jakinaraziz kasuaren arabera kanporatuko da.

III-BALORAZIOA

Bi balorazio mota bereiztu behar dira, bat barnera begira eta beste bat kanpora begira:

1. Eraso edota salaketa bat gertatu eta gero, protokolo honek duen helburua bete izan duen edo ez baloratu beharko da:

- Jarraibideak eta erantzunak eman dizkigu aurkeztu zaizkigun egoeren aurrean?
- Aski izan da?
- Argia izan da?
- Protokoloa bete ez bada, zergatik izan da?
- Zer sentitu dugu faltan?

2. Erasoaren ondotik eta denbora bat pasatu eta, irakurketa eta balorazioa egin.

IV – LISTE OKERRAK

a) Arazo pertsonalen ondorioa da

Zabaldua den ideia da indarkeria “kasuak” eta zehazki horien adierazpen bortitzenak (hilketak) arazo pertsonalen ondorio direla; hau da, gizon batzuek kontrola galtzen dutela eta ezin izaten dutela beren “pasioa” menderatu, aurrez emakumeen probokazioa jasan ondoren betiere.

→ Indarkeria hori ez da harreman pertsonaletan oinarritzen eta, banakoen artean gertatzen bada ere, sexu-genero botere harremanen ondorioz gertatzen da.

b) Emakumeek ere eragiten dituzte tratu txarrak eta salaketa faltsuak

Salaketa faltsuak salaketa guztien %1-a besterik ez dira. Aipatzekoa da ere indarkeria jasaten duten emazte gehienek ez dutela salatzen, ondorioz salaketa kopuruek ez digute indarkeriaren dimentsio osoa ikusten ahalbidetzen.

c) Erasotzaileek ez dute buztanik. Pertsona gaixoak dira. Ez daude nire inguruan.

Erasotzaileak ez dira sekula auzokide, adiskide, familia edo militante kideztat imajinatuko ez genituzkeen munstroak. Pertsona arruntak dira, beste edozein gizon bezain arruntak, eguneroko beste jokabide batzuetan eta bizitzaren beste eremu batzuetan.